

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Espainiako eta Ameriketako 2011ko Ortografiako Lehiaketan ikastetxeen eta autonomia erkidegoen faseetarako deialdia egin du

Ikastetxeek irailaren 24ra arte aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak

Viernes, 09 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak [Espainiako eta Ameriketako 2011ko Ortografiako Lehiaketan ikastetxeen eta autonomia erkidegoen faseetarako deialdia egin du](#), lehiaketaren estatuko fasean Foru Erkidegoaren ordezkari izango den ikasle bat aukeratzeko. Ikastetxeek aukeratutako ikasle baten izena eman beharko dute irailaren 24a baino lehen Hezkuntza Departamentuan.

Fase horretara 2011-2012 ikasturtean Batxilergoko 2. maila ikasiko duen ikasle bat aurkeztu ahal izango da.

Aurrez, ikastetxeek, proba egokiak eginda, autonomia erkidegoen fasean haien ordezkari izango den ikaslea hautatu beharko dute. Fase horretarako probak urriaren 5ean egingo dira Iruñeko Navarro Villoslada BHIIn. Emaitzak probak amaitzean jakinaraziko dira.